

Bestelako lankidetzak

HABE aldizkaria: paperezko argitalpena eta teknologia berriak elkarrekin uztartuz

Esther Isasa, Eskarne Lopetegui

Gero eta pisu handiago dute teknologia berriek gure bizimoduan. Euskararen alorrean ere nabarmena da aurrerapen teknologikoen isla. Hogei urte bete berriak ditu HABE aldizkariak. Ibilbide horretan hainbat eta hainbat aldaketa izan ditu. Eta agian oraingoa da sustraikoena. Gaur egun, paperezko euskarriaz gain argitalpen elektronikoa ere bai baitago irakurle (eta ikusle eta entzuleen) eskura. Aldaketa horien berri emateko, HABE aldizkariaren egileak beraiek ditugu artikulugile.

Sarrera

Ezertan hasi aurretik, historia pixka bat egin dezagun. HABE aldizkariak 20 urte bete berriak ditu. Ez alferrik! Ibilbide luze honetan hamaika saio egin dira ikasleei irakurgai gustagarriak eta euskaraz ikasteko baliabide eraginkorrak eskura jartzen. Urratsik nabarmenenak iazko uztailerako paperezko aletik aurrerakoak eta aurtengo maiatzaz geroztik sarean dagoen argitalpen elektronikoa izan dira.


Urrats hauek ez dira nolana hikoak izan: 1994az geroztik HABEk aurrera daraman Helduen Euskalduntzearen Oinarriko Kurrikuluaren hariokoak izateaz gain, teknologia berriek didaktikaren esparruan eskaintzen dituzten ahalbideak gurean ere urratzea ezinbesteko jotzen genuen. Honek guztiak eraginda, aldaketa eta berrikuntza ugari txertatu ditugu, hasieran, esan bezala, HABE aldizkariaren paperezko argitalpenean eta gerora elektronikoa.

Egun, izaera biko aldizkari didaktikoa eskaintzen diegu, beraz, euskararikasleei: paperezkoa eta elektronikoa. Horregatik, ikasleak batean zein

bestean aurkituko ditu bere kasa euskara ikasteko baliabideak eta proposamenak. Eta ez diogu alferrik “bere kasa”. Izan ere, euskara bakarka ikasten ari dena baita gure hartzaile nagusia, gure egitasmoaren ardatza. Bestela esanda, autoikaskuntzarako langai direla, alegia, bi argitalpenak. Baina, ez gara autoikaskuntza zurrunaz ari. Ez baitizkiogu ikasleari ibilbide didaktiko metagarriak eskaintzen, baizik eta aukerazkoak edota osagarriak. Hone-la, ikasleak gustuko edo komeni zaionari helduko dio eta proposatutakoa egitera animatzen bada, jakin badaki tutore baten babesa izango duela, berak egindakoa zuzendu eta behar dituen aholkuak emateko.

Ezaugarriak ezaugarri, eta horien harian arituko gara ondorengo lerrootan, zera azpimarratu nahiko genuke: bi argitalpenak, zein bere esparrura egokituak daudela. Horregatik, euskarrian ez ezik, eduki eta baliabideetan ere desberdinak izango dira. Baina, betiere elkarren osagarri.

Argitalpenaren maiztasuna, ariketen tipologia eta kopurua edota euskarrien bistaratzea dira ezberdintzen dituenak. Hala ere, etengabe zubiak eraikitzen aritzen gara osagarri izan daitezten eta horregatik bi argitalpenek elkarri erreferentzia egiten diote. Paperezkoan, esaterako, ikurraz adierazten dugu irakurgai hori elektronikoan ere argitaratu dugula; gehienetan, beste jarduera didaktiko desberdinak eskainiz eta entzungaieiz horniturik. Hartara, ikasleak irakurgai edota gai beraren inguruan lanketa desberdin eta ugari aurkitu ahal izango ditu, argitalpen batek bestea osatuz.



Paperezko HABE aldizkariaren ezaugarri nagusiak

HABE aldizkariaren helburu nagusia euskaraz irakurtzeko tresna entrenigarria eta euskara bakarka ikasteko lanabes aberats eta egokia izatea izan da beti. Hedabide bat den neurrian, gaurkotasan handiko gaiak ditugu hizpide, irakurlearen arreta geureganatu nahi baitugu. Baina, helburu didaktikoa duen aldetik, HEOKaren irizpideei jarraitzen diegu irakurgai eta entzungaietatik abiatuta, ikasleak bere kasa eta irakasleak taldean baliatu ditzakeen jarduera didaktikoak proposatuz.

Ondorioz, 305. aletik aurrera pisu handiagoa hartuko du alderdi didaktikoak: aldaketarik nagusia, berriz, ahozko nahiz idatzizko testuekin lotutako jarduerak aurkezten direla, CDa argitaratzeak ahozko ulermena lantzeko aukera ere ematen baitigu.

Aldizkariaren diseinuak eta maketazioak ere garrantzi handia duela uste dugu. Irakurleak gusturago irakurriko du eta, azken batean, testua erakarriagoa izango zaio hein handi batean, ilustrazio, argazki eta kolore desberdinez hornitutako testua. Gainera, osagai hauek guztiek beti lagunduko diote testua hobeto ulertzen.

Ez da lan erraza, hala ere! Ariketa ugari txertatu behar denez, maketazio-lana ez dago alde aurretik definitua eta horrek esan nahi du alez ale testu, ariketa eta osagai bakoitzari propio bere neurriko diseinua egin behar zaiola, irakurgaia eta ariketak ongi bereiziz. Izan ere, soil-soilik testua irakurri nahi duenari ez baitio ariketak enbarazurik egin behar.

HABE

euskarara ikasten ari garenon aldizkaria

305.

2000ko uztaila
Zenb.
390 pta. / 17 libera/
2,34 euro (B.E.Z. barne)



Txirrindularitzaren alderdi ezkutuez berriketan

Interesgunean

Ezkondu
esposatu,
uziartu,
lotu

Gaugero
Giza genoma

Zinea
La Mancha-
tik
Hollywood-era

ariketak: **EGA**

Irizpide orokorrak

Aldizkariko irakurgai batzuk lanketa didaktikoa dute, ez guztiek: idatzizko testu-eren ugaritasunak aldizkariaren ezaugarri izan behar du. Horregatik, ahalik eta testu-era gehien lantzen ditugu. Testu-mota bakoitza hezurramitzen duen egitura eta ideien kateamenduari ere erreparatzen, HEOKan proposatzen diren guztien ereduak eskainiz:

- *Azalpenezko testuak.*– Erreportaje eta artikulua: data baten gainean eraikiak, esperientzia pertsonala, gertaera bat oinarrian... Ideien antolaketaren arabera: kausa-ondorioa...
- *Deskripzioa.*– Egitarauak, leku eta pertsonaien deskripzioak, liburu eta diskoen ezaugarriak, gurutzegramak, iragarkiak, mapa/planoak, argazki-oinak, hiztegi-takako definizioak...
- *Instrukzioa.*– Joko-arauak, lehiaketa, errezetak, argibideak (tresnak), horoskopoa...
- *Narrazioa.*– Kronikak, biografiak, ipuinak, kontakizunak, efemerideak, txistekak, komikiak, eskutitz formalak, agenda, pasadizo barregarriak...
- *Argudioa.*– Iritzi-artikuluak, kritikak...
- *Elkarrizketak.*– genero periodistikoarekin batera grabazioak, transkripzioak (elkarreraginezko baliabideak atzematuko)...

Gaien aukeraketa

Kultura orokorraren ingurukoak eta ikaslearen mundu-ezagutzatik eta interesetik hurbilekoak dira jorratzen diren gaiak. Batzuetan, gai orokor bat ardatz harturik, bizpahiru artikulua eskaintzen ditugu. Honela, azpi-gaiak testu-era desberdinen bidez aurkez ditzakegu. Askotan, gai batzuk zenbait irizpideren arabera antolatzen ditugu: mintzabidea ematen dutenak, aurreikuspenak egiteko bidea eskaintzen dutenak, zaharberritzeko egokiak direnak, hiztegia lantzeko aukera ematen dutenak...

Jarduera didaktikoen ebaluazioa

Zenbait ariketak zuzenketa-orria aldizkarian bertan dute eta azkenaldeko orrietan ikusi ahal izango ditu ikasleak. Beste batzuetan, ordea, berak egiaztatzeko bideak jarri dizkiogu eskura. Badira, hala ere, erantzun irrikikoak. Kasu horietarako, tutoretza-zerbitzua eskaintzen diogu. Gehienetan idazmenaren alorrekoak izaki, ikasleak nahi izanez gero, HABEra posta elektronikoz (edo posta arruntaz) bidaltzea du.

Euskaltegietan dabiltzanek irakaslea bera izango dute aholkularirik onena.

Aldian-aldian autoebaluazio-orriak txertatzen saiatzen gara. Honela, ikasleak alean zehar landu dituen eduki batzuen inguruko hausnarketa bideratzeko galdeketa lagungarriak aurkituko ditu. Zer, nola, zenbat... ikasi duen esparru gramatikalean, lexikoan, estrategikoan, diskurtsibotan... moduko galderak eginez.

Entzungaiak

Hiru hilabetez behin alearekin batera CD-Audio euskarrian entzungai-sorta bat eta beren transkripzioak argitaratu ohi ditugu. Ikasleak ordena-

gailuz entzuten eta irakurtzen ahal ditu osagai horiek. Hala ere, bakarrik entzun nahi izatera, badu aukera.

Entzungai guztiek dute berariazko lanketa aldizkarian. Bertan aurkituko ditu instrukzioak eta jarduerak. Hartara, ikasleak irakurgaieiz eta entzungaieiz baliatuz ibilbide didaktiko bat egin dezake bi trebetasunen esparruan. Baina zein irizpideri jarraitzen diogu edukiak aukeratzeko garaian? Jarraian dituzue xehetasunak:

- 1 Elkarriketen jatorrizko grabazioak. Hartara, ikasleak eduki berberaren hiru aldagai aurkituko ditu: lehena, jatorrizko entzungaia (osorik edo zatiren bat), bigarrena, entzungaiaren transkripzioa, eta azkenik, irakurtzeko elkarriketa, testu-era periodistikoa, hain zuzen. Hiru aldagai hauek oso baliagarriak dira ahozko eta idatzizko eredu arteko aldeak eta zubiak atzemateko.
- 2 Aldizkarian bertan ageri den gai batekin lotura duten entzungaiak. Honelakoetan, osagarriak izan ohi dira irakurgaia eta entzungaia, beste ikuspegi bat edo beste testu-era bat azaltzen dutelako. Entzungai hauek hedabideetatik hartuak edota HABE aldizkariarentzat propio HABEn bertan grabatutakoak dira, baina edozein kasutan hiztunak natural-natural arituko dira hizketan. Jarduerak hizkuntza-lagin horien gainean *a posteriori* egindakoak dira.
- 3 Eduki gramatikalak nahiz diskurtsiboak lantzeko propio grabatutako entzungaiak: egoeren grabazioak izan ohi dira eta elkarriketa edota bakarriketa motzetan irudikatzen ditugu. Gehienetan euskaltegietao irakasleak izan ohi dira gure gonbidatuak eta egoeren berri besterik ez diegu ematen, inolako gidoi idatzirik gabe. Honela, beren hizketaldia bat-bateko antzerki bihurtzen da, diskurtsua nahikoa naturala delarik.
Egoera edo eginkizun bereko bizpahiru eredu biltzeko moduko saioak egin ondoren, ondorioak eta horien inguruko ariketak aldizkarian, *Ikaslearen Koaderno*a izeneko sailean argitaratzen ditugu. Atalaren izena *Hizkuntz Moldeak* da.
- 4 Hauetaz gain, CD-Rom-ak ere argitaratu izan ditugu: *Euskara Hobe-tzen, Ikastira...* Honelakoetan, produktu itxi diren neurrian, ariketez osatu ditugu eta aldizkarian txertatu.

*Transkripzioak:
hainbat irizpide*

Eta nola jokatu dugu entzungaien transkripzioak egiteko garaian? Gure irakurlea euskara-ikaslea denez, ahozko jardunak transkripzioez baliatuz edukia hobeto ulertzea dugu helburu. Horregatik, transkripzioetan ahozko moldeak idatzizko arauetara ekarri ditugu, bai ahoskeran gorabeherak daudenean eta baita eredu estandarrak hartu ez duen euskalki jakin bateko moldea denean. Adibidez, *zidazuten*-en ordez *zenidaten* idatziko dugu edo *indezu* dionean, *egin dugu* ipini dugu.

*Ikaslearen
koaderno:
ikaslearentzat propio
prestatutako saila*

Merezi du sail honi tartetxo berezia eskaintzea hemen. HABE aldizkaria berritzeko egitasmoari heldu genionean, hasiera-hasieratik argi genuen aldizkarian ikasleari bere ikas-prozesuan lagungarri zaizkion hainbat eredu, aholku eta ohar biltzeko sail bat sortu behar genuela. Helburu honi

erantzunez, 305. aleaz geroztik *Ikaslearen Koaderno*a argitaratzen dugu. Bertan aurkituko ditu ikasleak bere idazlanak hobetzen lagunduko dioten aholkuak, azterketa ofizialen ereduaren gainean hobe beharrez emandako iradokizunak... Era berean, ikaslea euskarazko zenbait hitzen esanahiaz jabetzeko garaian hainbat *adiskide gaiztoarekin* topo egiten duela jakin badakigu. Eta horregatik, horiei buruzko argibideak ere eskaintzen dizkiogu.

*Hiztegi lagungarria
eta azalpenak*

Orri-barrenetan ageri den hiztegitoxa HABE aldizkariko irakurleak betidanik izan duen tresna lagungarria da. Testuan ageri diren zenbait hitzen sinonimo edo gaztelaniazko ordaina ipintzen diogu irakurketan lagun diezaion. Modu honetan, ikasleari aurrea hartu eta eskura jartzen dizkiogu zenbait molde edo hitzen esanahiak. Baina, hori ez ezik, jakitun gara badirela beste zenbait esamolde ere ikasleei orokorrean korapilatsu xamarrek gertatzen zaizkienak. Hala morfosintaxi aldetik nola semantikaren ikuspegitik ikasleei buruhauste ugari sortzen dizkiete horiek. Horregatik, esamolde horien inguruan hainbat argibide ematen saiatzen gara, kateatuta gera ez dadin eta aurrera egin dezan.

HABE
@ALDIZKARI
ELEKTRONIKOA
www.habe.org/ikasle
aregunea

Ikaslearen Gunean, euskara-ikasleen interneteko esparruan dago HABE @ldizkari elektronikoa, euskaraz irakurtzeko tresna entretenigarria eta, aldi berean, euskara ikasteko tresna baliagarria izango dena. Paperezkoaren antzera, bere gustuko eta gaurkotasun handiko irakurgaiak eta entzungaiak, testu-mota ugarien bidez eskainiak aurkituko ditu: erreportajeak, iritzi-artikuluak, elkarrizketak... Eta jakina, bakarka euskaraz ikasteko lanabes aberats eta egokiak esku-eskura jarriak: ariketa mailakatuak, entzungaiak, transkripzioak, trebetasunen inguruko aholkuak eta beste hainbat baliabide. Horien artean azpimarratzekoak: Elhuyar Hiztegia (euskara-gaztelania, gaztelania-euskara) Hiztegia 3000 (euskara-gaztelania, gaztelania-euskara), Sinonimoen hiztegia; eta Euskaltzaindiaren arauak, besteak beste.

Ariketa
mailakatuak

Ariketak mailakatu ditugu. Ez, ordea, ahozko edo idatzizko testua. Izan ere, testu berak hainbat eduki lantzeko balio baitezake proposatutako eginkizunaren arabera. Eginkizuna da, beraz, zaila edo erraza gerta litekeena, eta ez testua.

Ariketak irakurgaiarekin edota entzungaiarekin lotuta egongo dira eta instrukzio argi batzuen bidez, egin ahal izango ditu. Lanketaren prozedura argibide horietan azalduko da eta ariketa mailakatzeko duen zenbakian klik egin, ariketa bera azalduko zaio ikasleari.


Ariketa mailakatu horietako batzuek zuzenketa bertan dute, beste batzuek, ordea, *tutoretza-zerbitzuaren* bidez zuzentzeko aukera egongo da. Honela, nonahi egonda ere, beti izango du idazlanak eta itzulpenak zuzendu eta bere ikas-prozesua bideratzen lagunduko dion tutorea edo aholkularia.

Bilatzailea

Interneteko argitalpenak irakurgai, entzungai eta ariketen bilatzailea eskaintzen du. Aurkibidean bertan edota sailez sail joanda, azken edukiak bistaratzen dira. Baina, aurrekoetara jotzeko bilatzailea da tresnarik eroso eta azkarrena. Bilaketa hitz gakoaz, saila aukeratuz, mailaren edota ariketa-motaren arabera egin daiteke, besteak beste.

*Ikaslearen koaderno
eta irakaslearen
tartea*

Ikaslearen koaderno sail berezitu modura eskaintzen dugu aldizkari elektronikoan. Sarbide zuzena du aurkibidearen goiko aldean: ikurrean klik egin eta nahikoa da *Ikaslearen Koadernoko* aurkibide nagusira heltzeko. Bertan dauden edukiak, azpi-sail batzuetan antolatu ditugu, irakurlearentzat oso ezagunak diren *Ikusiz ikasi*, *Trebetasunen inguruko aholkuak* edota *Adiskide gaiztoak* esaterako. Baina, paperezko argitalpenarekin konparatuta, badute alderik. Izan ere, elektronikoak sail hauetan ageri diren proposamen bakoitzari inguruan ikasleak zuzenean bereak erantsi baitiezazkioke, gainerako ikasleek gurearekin batera ikus eta azter ditzaten, eztabaida-gune itxura hartzen duen tartea eraikiz. Honela, ikasleek beren artean iritzi-trukaketan aritzeko aukera dute.



Beste hainbeste eskaintzen diegu irakasleei. Interneteko **HABE @Idizkariak** *euskara-irakasleei* irakurgaietatik abiatuz *talderako aholku didaktikoak* proposatzen dizkio. Baina, beren ekarpenak oso garrantzitsuak direnez, gure proposamenari edota besteenei buruzko iradokizunak bidaltzera gonbidatzen ditugu.

Proposamen eta iradokizun hauek beste irakasleek izugarri estimatuko dituztela iruditzen zaigunez, guk bideak ireki besterik ez dugu egiten. Talderako jarduera hauek aurkitzeko ikur hau duten artikuluetara jo behar da, edo bestela zuzenean aurkibidearen goiko aldean dagoen ikurrean klik eginez.



Eta ikasgelan zer?

Orain arte esandako guztia aldizkariaren edukia eta helburu nagusiak azaltzeko izan da. Urrutirago iritsi nahiko genuke, ordea. Izan ere, ez baitugu alde batera utzi nahi ikasgelako jarduna. Horregatik, izaera bikoitza duen aldizkari didaktiko hau gelan, ikasleekin, nola eta zertarako erabili azaldu nahi dugu.

Hasiera-hasieratik esan dugu eta 1981eko azaroko 0 alea argitaratu zenetik hala dago adierazita, euskara ikasten ari direnentzat egindako aldizkaria dela **HABE**. Baina, hori horrela izanik ere, hainbat eta hainbat urtetan gehiago izan da irakasleen tresna ikasleena baino. Irakasleak aldizkariaren paperezko argitalpena material gisa erabili izan du, artikulua foto-kopiatu eta gelara eramanez.

Duela zenbait urte, batez ere 80ko hamarkadan, nahikoa normaltzat jo zitekeen aldizkariaren erabilera hori. Euskarazko argitalpenak urriak eta didaktikarako desegokiak ziren eta nekez txerta zitezkeen euskaltegieta-ko lan-dinamikan.

Gaur egun, ordea, oso bestelakoa da egoera: osasuntsu ditugu euskarazko argitalpenak. Zer esan nahi dugu? Nahikoa testu ditugula eskuartearen jatorriz euskaraz idatzita. Premia nagusi hau asetuta badago, beraz, zer eransten dio, zer gehiago eskaintzen dio irakurleari HABE aldizkariak?

Galdera honi erantzuten saiatzen gara aiez ale. Horregatik ariketak, horregatik aholku didaktikoak, horregatik gaien aukeraketa berezia. Hitz bitan esateko, horretara bideratu nahi izan dugu gure ahalegin guztia.

Une honetan, hala ere, bidearen erdian gaudela uste dugu. Izan ere, lehen esan dugun bezala, euskara-ikasleei zuzenduta dago eta ikasle gehiagorengana iritsi nahi dugu. Bestalde, ikasleei ez ezik irakasleei ere eskaini nahi diegu ikasgelarako lanabes baliagarria. Azter dezagun nola erabiltzen den eguneroko jardunean. Aldizkaria euskaltegian jaso ondoren artikulua interesgarri bat aurkitzen du irakasleak, ariketa eta guzti. Artikulua fotokopiatuko du eta gelara eramango du ikasleek irakurtzeko.

Batzuetan talde handian irakurriko dute ikasleek, bakoitzak zatitxo bat irakurriko du ozenki. Beste zenbaitetan bikoteka jarriko ditu irakasleak, artikulua erdia bikotekide bakoitzari emanez, elkarri kontu diezaizoten. Aldizkarian proposatzen zen ariketa, bakarka egiteko bazen ere, talderako bihurtuko du irakasleak, formulazioa aldatuz edo ahoz emanez. Ariketa taldean zuzenduko da edo irakasleak ikasleek egindako lanak jaso eta hurrengo baterako zuzenduko dituela aginduko die ikasleei.

Honaino, irakasleei gehien entzun dieguna. Baina, kexu ere badira gure euskara-irakasleak. Izan ere, orain arte deskribatu dugun egoeran ikaslearen bat harpideduna bada, delako artikulua fotokopia gelara eramanez gero, harpidedun-ikasle horrek irakurrita daukala esango baitio irakasleari beste guztien aurrean, prestatuta zekarren jardura erabat zapuztuz. Baina, orduan, nola bihurtu bientzako, ikasle zein irakaslearentzako tresna egoki eta probetxugarria?

Oraingoan ere galdera. Eta galderari erantzutera dator artikulua zati hau, ustez behintzat, argigarri izan daitezkeen arrasto batzuk proposatuz.

Ikasgelatik kanpo gure ikasleek euskaraz lanean jarraritzea izan da beti irakasleen kezka nagusietako bat, baita HABEren ere. Ikasleak euskaltegitik atera bezain pronto ikasten ari den hizkuntzarekin inolako harremanik ez badu, oso zaila gertatuko zaio gelan ikasitakoa benetan erabiltzeko modukoa bihurtzea. Ingurunea euskalduna den eremuan errazagoa gertatzen da: zine-emanaldiak, urriak badira ere, egon badira zenbaitetan euskarazko filmak, antzerki-lanak, musika-emanaldiak...

Ingurune erdaldunetan, zailagoa da, zalantzarik gabe. Horregatik iruditzen zaigu hain garrantzizkoa lanabesak eta aukerak eskaintzea. Horieta-ko bat da HABE aldizkaria. Ikasleak, bere etxean, euskaraz aritzeko modua izango duelako. Eta nola uztartzen da hori ikasgelako lanarekin?

Irakaslea bere aldetik badabil, ikasleari aldizkariko proposamenak aipatu edo azpimarratu gabe, ikasleak berak nekez aurkituko die baliorik. Kostua txikia izanik ere, bere buruari galdetuko dio ea zer egin behar duen aldizkariarekin euskara ikasteko.

Gure ikuspegitik, zalantzarik gabe, gelako jardunaren zati hartu beharko litzateke aldizkaria, irrati-kasetea edo fotokopiak diren moduan. Ikus dezagun nola eta zer bi argitalpenak bereiziz:

Paperezko argitalpena

Ikasle guztiak harpidedunak ez badira

Jarduerak proposatu: Behin lanketarako interesgarria iruditzen zaigun testua aukeratuta, ikasleei testuaren gainean (idatzizkoa nahiz ahozkoa) lan egingo dugula azalduko diegu. Ikasleren batek irakurrita edo entzunda duela esanez gero, kontuan hartuko dugu eta ideia nagusien berri emateko eskatuko diegu.

Testua irakurri edo entzun dutenak bat baino gehiago badira, taldean egin dezatela lan hori. Bitartean, beste ikasle guztiei eskatuko diegu testuari buruzko aurreikuspenak egiteko. Izenburua emanda, edukiaren inguruko hipotesiak egiten saia daitezela.

Azalpena entzun ondoren, berriz irakurri edo entzungo dute testua bakarka, jasotako informazioa alderatuz. Segidan, aldizkarian bertan eskaintzen diren jarduerak bakarka egitea proposatuko diegu edo etxean egiteko esango.

Beste aldaera bat zera izan daiteke: Bertan eskaintzen diren jardueren ordez taldean egiteko modukoak irudikatzea. Horretarako, oso lagungarri gertatuko zaigu **HABE @Idizkariko IRAKASLEAREN TARTEAN** emandakoei erreparatzea. Orokorrak direnez, nahiz eta testu batekin lotura zuzena duten, beste antzeko testuekin gauza bera egiteko aukera eskaintzen dutela uste dugu.

Ikasle guztiak harpidedunak badira

Zenbait euskaltegitan aukeratutako formula honek errazago saihesten du aurreko atalean komentatu dugun arazoa, aldez aurretik bai baitakigu ikasle guztiak eskura dutela aldizkaria, baita noiz izango duten eskuartean ere.

Jarduerak proposatu: Lehenago azalduetakoez gain, beste era bateko proposamenak egiteko aukera eskaintzen digu aldizkaria osorik ikasle guztiak edukitzeak:

- Alean jorratzen diren gaietatik aukera ditzatela interesgarrienak iruditzen zaizkienak, orain arte bezala, aukeraketa guk geuk egin ordez. Hartara, ez dugu entzungo irakasleak aukeratutakoa ez zaiela gustatzen edo gaiari buruz ez dakitela ezer edo gehiegitan hitz egin dela horretaz ikasgelan.
- Gustuko dituzten gaietatik bat aukeratu eta eskaintzen duen informazioaz gain, jakin nahiko luketena esan dezatela, bertan ageri den informazioa osatze aldera. Horretarako, aldizkariaren argitalpen elektronikora joko dugu, besteak beste, bertan aurkituko baititugu gai berberen inguruko beste hainbat testu osagarri.
- Hurrengo baterako aldez aurretik adostutako testu bat entzun edo irakurtzeko konpromisoa eskatu ikasleei, gelan landuko dela azpimarratuz.

- Aldizkarian zenbaitetan agertzen diren azalpenak eredutzat hartu eta guk (irakasleak bakarrik edo ikasleei galdetuta) interesgarriztat jotzen dugun beste egituraren baten gaineko informazioa bilatu eta antzeko azalpen bat idaztea proposatu.
- Hiztegia lantzeko, INTERESGUNEA sailean ematen den hiztegiari erreparatu, gaiarekin zerikusia duten hitzak aztertu eta ezagutzen ez zituztenak azaleratu, hiztegi berri propioa sortuz.

Zerrenda dezente luzatuko genuke, baina ez dugu dena idatzita artikulua honetan eman nahi, gaiak merezi duela uste baduzue, beste bide batzuetatik emango baitiogu irtenbidea. Hala dela uste baduzue, eskertuko genizueke jakinaraztea. Zuen esku dago, beraz, gehiago sakontzea.

Jardueren zuzenketa

Jardueren ondorioz sortutako lanak irakaslearentzat edo bere ikaskideentzat bakarrik izan ordez, aldizkarian bertan argitaratzeko modukoak izan daitezkeela hartu beharko luke kontuan irakasleak, eta horren araberrako proposamena luzatu ikasleei: iritzia eskatzen bazaie, adibidez, ZURE TXOKOA sailean argitaratzeko edo IKASLEAREN KOADERNOA sailean IKUSIZ IKASI atalean tokitxo bat eskaintzeko modua baitugu.

Aurretik zehaztea zaila denez, hemendik gure gonbitea: ikasleen lanek merezi dutela uste duena jar dadila gurekin harremanetan guk aurkituko baitiogu toki aproposa aldizkarian.

HABE @Idizkaria

HABE aldizkariaren bertsio elektronikoan sartzeko, dakizuenez, ez dago harpidetza egin beharrik, nahikoa da gure helbidean www.habe.org/ikaslearengunean klik egitea.

Badakigu zaila izango dela gure ikasle guztiek ordenagailua izatea etxean. Baina, hala ez bada ere, norik duen jakinda, horiei aginduko dizkiegu bakarkako lanak. Horretarako, komenigarria da ikasturte hasieratik ordenagailua duten ikasleak zein diren jakitea.

Autoikasketarako gelarik badugu, berriz, astean ordu jakin batzuk eskainiko dizkiogu aldizkarian proposatzen diren jarduerak egiteari, IKASLEAREN GUNEAn eskaintzen diren beste baliabide guztiekin bezalaxe.

Paperezko argitalpenak ez bezala, elektronikoak ez du luzera aldetik inolako mugarik, nahi adina orrialde txertatu baitaitezke. Gainera, HABEtik bertatik kargatzen denez, oso erraz eguneratzen da eta nahi dugunean testu berriez hornitu, idatzizkoak zein ahozkoak, ez ahaztu.

Paperezko argitalpenaz aritu garenean ikasleen lanak txertatzeaz hitz egin badugu, elektronikoan gauza bera egitea askoz ere errazagoa dela azpimarratu nahiko genuke. Irakaslearen esku dago, beraz, hainbat eta hainbat buruhauste sortu izan dizkigun arazoari konponbidea ematea, hau da, ikasleak idazten edo grabatzen jartzeko aitzakiak aurkitzearena.

Hemendik aurrera, aitzakiarik ez! Eta gainera, mundu osoko edozein tokitatik irakurtzeko modua egongo da, ezin esan, beraz, zertarako ida-

tzi? Norentzat? Posta elektronikoa jaun eta jabe bihurtzen ari zaigun garai honetan, bihur ditzagun ikasleak idazle.

Amaiera Bukatzeko garaia heldu zaigun honetan, azken proposamen bat luzatu nahi genieke artikulu hau irakurri duten guztiei: izan zaitezte, zuek ere, HABE aldizkarian partaide.

Era askotara har dezakezue parte: gaiak proposatuz, ariketak eskatuz, zuen premien berri jakinaraziz, zuen ikasleen interesei erantzunez. Azken batean, gure lanak eta zuenak helburu berbera dute. Eta horko eta hemengo ahaleginak batuz, denon artean benetan euskara ikasten ari direnentzako aldizkari bat hilabetez hilabete egiteko arazorik ez dugu izango, beti elkarlanean.